



Ebazpena, 2018ko maiatzaren 31koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Euskadiko Autonomia Erkidegoko eskola publikoetako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleentzako material didaktikoei eta curriculuma garatzeko baliabideei laguntzeko programari buruzkoa.

Hezkuntza Sailak, Heziberri 2020 planaren barruan eta ikastetxe-elkarte, guraso eta irakasleekin batera, landu du «Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua». Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumaren ildo nagusi komunak zehazten ditu esparru horrek, eta bildu dira abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuan (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena).

Dekretu horren arabera, Oinarrizko Hezkuntza amaitu ostean, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ikasleek ezarrita eduki behar dituzte hezkuntza-helburuen oinarriak, eta gai izan behar dira bizitzaren esparru eta egoera guztietan aurrera egiteko. Horretarako, ikasleek beren burua prestatu eta oinarrizko kompetentziez jabetu behar dute, gero eta globalizatuagoa eta elkarren mendekoagoa den mundu honetan bizitzeko.

Ikasleek irteera-profilean ezarritako oinarrizko zehar-kompetentziak eskura ditzaten, Curriculuma garatzeko, ikasmaterialek eta baliabideek bete behar dituzten ezaugarriak eta baldintzak zehaztu dira, 236/2015 Dekretuaren 26. artikuluan. Hori dela-eta, honako hau gogoratzea komeni da:

a) Ikasmaterialek dira ikasleei eta irakasleei irakaskuntza -eta ikaskuntza-prozesuen plangintza, garapena eta ebaluazioa egiten laguntzeko lantzen diren mota guztietako materialek. Ikasmaterialek modu malguan erabili behar dira, inguruneke baldintzetara eta ikasleen ezaugarrietara egokituz.

b) Material didaktikoei bat etorri behar dute Dekretu honetan proposatutako hezkuntza-eredu pedagogikoarekin. Hezkuntza Sailak, Berritzeguneen bitartez, ikastetxeak orientatuko ditu material didaktikoei bete behar dituzten oinarrizko ezaugarriei buruz, koherenteak izan daitezzen 236/2015 Dekretuan definitutako hezkuntza-eredu pedagogikoarekin.

c) Material didaktikoak editatzeko eta aukeratzeko ez da behar Hezkuntza Sailaren baimenik. Nolanahi ere, zorrotasun zientifikoa eta hizkuntza egokitu behar zaizkio ikasleen adinari eta 236/2015 Dekretuan araututako curriculumari. Lege-ordenamenduko printzipioak, balioak, askatasunak eta betebeharrak ere agertu eta sustatu behar dira, eta diseinu unibertsalaren eta irisgarritasunaren ezaugarriak bete.

d) Ikastetxeek autonomia dute curriculumaren garapenerako materialek eta baliabideak sortzeko eta hautatzeko, arautegiari jarraituz. Dena dela, irisgarriak izan behar dute, bai ezgaitasun fisiko, sensorial edo intelektualen bat duten ikasleentzat, bai ikasteko beste zailtasun batzuk dituztenentzat.

e) Ikasgai bakoitzaren curriculuma garatzeko materialek eta baliabideak askotarikoak izan daitezke, tradizionalak ez ezik euskarri askotarikoak ere bai, ikasleen artean denetariko eta jatorri askotako iturrien bilaketa kritikoa sustatzeko.

f) Erabiltzen diren material didaktikoetan, hezkidetza-helburuak azalduko dira. Bestalde, hizkuntza ez da modu sexistan erabili behar, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotipatu gabekoa bermatu behar da. Dena dela, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak debekatu egiten du pertsonen sexu batekoa



edo bestekoa izateagatik duintasun gehiago edo gutxiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duten testu-liburuak edo material didaktikoak zabaltzea eta erabiltzea, bai eta emakumeenganako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen dutenak ere. Era berean, aniztasun familiarra eta afektibo-sexuala agertu behar da curriculum-materialetan, gainerako errealitate kulturalak, etnikoak...

g) Ikastetxe publikoetako Koordinazio Batzorde Pedagogikoari dagokio materialen eta baliabideen irizpide pedagogikoak ezartzea.

h) Hezkuntza Sailak plataforma digitalen garapenean lan egingo du, hezkuntza-komunitate osoari eskaintzeko, jabetza intelektualaren arautegia betez. Plataforma horietako materialak eta baliabideak honako irizpide hauen arabera hautatuko dira: kalitate metodologikoa, estandar irekiak, eta hedatu, egokitu, berrerabili eta birbanatu ahal diren iturriak eskura jartzea.

i) Hezkuntza Ikuskaritzari dagokio ikastetxeek beren pedagogia-autonomia erabiliz curriculum-a garatzeko aukeratutako materialak ikuskatzea, ikaskuntzako eta irakaskuntzako elementu guztiak ikuskatzeko ohiko prozesuaren barruan.

Bestalde, Oinarrizko Hezkuntza amaitu duen ikasleak konpetentzia digitala eta mediatikoa izan behar du, konpetentzia digitalaren arloko esparru europarraren ildoan, egungo herritarrek eskatzen duten alfabetatze eta gaikuntza funtzional osoa bermatzeko. Ondorioz, ezinbestekoa da helburu horiek betetzeko moduan orientatzea hezkuntza-administrazioaren ildo estrategiko guztiak. Ikasleen aniztasunari egokitutako ikaskuntza pertsonalizatua areagotu duten planteamenduak sustatu nahi baditugu, ildo horietako bik –material didaktikoak sortzea eta erabiltzea eta Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan txertatzea– elkarrekiko harreman estua izan behar dute.

Hortaz, ezinbestean, Hezkuntza Saileko material didaktikoen programak gero eta material kurrikular digital gehiago sortzeko eta erabiltzeko balio behar du. Material kurrikular inprimatuekin batera erabili beharko dira material digitalak, gero eta eskola gehiagok *Sare Hezkuntza Gelan* proiektua aurkez dezaten.

Horretarako, 2015-2016 ikasturtean, Eskola Materialak Kudeatzeko programara arian-arian egokitzeko, eskola bakoitzaren ezaugarri, egoera eta hezkuntza mailarekiko errespetua gordetzen zuten erraztasunak eskaini ziren honako helburu honekin: ikasleek Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumean ezarritako oinarrizko gaitasunak izatea, denbora jakin batean.

Aurrekoarekin bat egiteko, 2018-2019 ikasturtean honako aginduak bete behar dira:

1.- LEGE-OINARRIAK.

Programak oinarri hauek izango ditu: ebazpen hau eta Hezkuntza Sailak programa hau kudeatzeko eta garatzeko sortuko diren aginduak.

Gainontzeko arau aplikagarriak betetzeari utzi gabe, batez ere honako araudi hauek beteko dira:

- 196/1998 Dekretua, uztailaren 28koa, ikastetxe publikoen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa arautzen duena, apirilaren 5eko 67/2005 Dekretuaren bidez aldatzen dena.
- 2006ko urriaren 18ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketetako sailburuarena, ikastetxe publikoen sarreraren eta gastuen aurrekontu egoera banantzen dituen eta 196/1998 Dekretuaren eranskinak eguneratzen duena.



- Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

2.- PROGRAMAREN XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.

Zentroak erabiltzen dituen material didaktikoak eta curriculuma garatzeko baliabideak dira programaren xede, eta irakaskuntza- zein ikaskuntza-prozesuak planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko orduan ikasleei eta irakasleei laguntzeko heburua dauka.

2018/2019 ikasturtean Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila ematen duten ikastetxe publikoetan ezarriko da.

3.- MATERIALAK ETA BALIABIDEAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Ikastetxe bakoitzean Koordinazio Batzorde Pedagogiko bat egon behar da. Batzorde horren osaera eta funtzionamendua ikastetxe bakoitzak erabakiko du, bere Antolakuntza eta Jarduera Araudian, baina Batzordearen eginkizunen artean beti egongo da ikastetxeak ematen dituen irakaskuntzetan curriculuma garatzeko erabiliko diren material didaktiko eta baliabideen irizpide pedagogikoak ezartzea, halaxe xedatuta dago-eta Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 26.6 artikuluan.

Material guztia egokitu behar da 236/2015 Dekretura, abenduaren 22kora, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenera, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren arabera.

4.- PROGRAMAREN KUDEAKETA

Ikastetxeak berak kudeatuko du Programa, « **material didaktikoei eta curriculuma garatzeko baliabideei kudeaketa**» kontzeptupean. Programa ikastetxearen urteko kudeaketa-planean barneratuko da.

Ikastetxeko Ordezkaritza-Organorenari dagokio:

- 1) Programaren antolaketarako eta funtzionamendurako ildoak onestea.
- 2) Programaren funtzionamendurako arautegia onestea; ikastetxearen antolaketarako eta funtzionamendurako arautegiaren parte izatera pasako da.
- 3) Programaren funtzionamendua ikuskatzea.
- 4) Programaren kudeaketa ekonomikoa material didaktikoei eta curriculuma garatzeko baliabideei erabileragatiko ekarpena ordaintzeko modua onartuz, indarreko legerian ezartzen diren modalitateekin bat etorritz.



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación
Dirección de Centros y Planificación

- 5) Familiartekoei ikastetxeak maila bakoitzean erabiliko dituen material didaktikoei eta curriculumara garatzeko baliabideei berri ematea.
- 6) Ebazpen honen xede diren material didaktikoak eta curriculumara garatzeko baliabideak eskuratzeko prozedura eta lekuak proposatzea.
- 7) Programaz arduratuko den ikastetxeko batzordearen sorrera onartzea.
- 8) Programa behar bezala gauzatzeko beharrezko diren bestelako funtzioak eta indarreko legeriak agintzen dizkionak.

Programaz arduratzen den ikastetxeko batzordeak honako kide hauek izango ditu, gutxienez:

- a) OOGko presidentea edo berak eskuordetzen duen beste edozein pertsona.
- b) Ikastetxeko idazkaria; batzordeko idazkari-lanak beteko ditu.
- c) Ikasleen gurasoen bi ordezkari. Horietako batek OOGko kidea izan behar du eta organo horrek proposatuta aukeratu behar da; bestea, berriz, Ikasleen Gurasoen Elkarteak proposatuta aukeratu behar da.
- d) Lehen Hezkuntzako ziklo-koordinatzaileak edota Bigarren Hezkuntzakoak.

Hauek dira ikastetxeko batzordearen funtzioak:

- a. OOGri bidaltzea Pedagogi Batzordeak prestatutako duen zerrenda, hau da, agindu honen xede diren material didaktikoak eta curriculumara garatzeko baliabideak osatutakoa, ikastetxeak maila bakoitzean erabiliko dituenak.
- b. Agindu honen xede diren material didaktikoak eta curriculumara garatzeko baliabideak eskuratzeko prozedura eta lekuak proposatzea. Guraso-elkarteak hala eskatzen badu, Batzordeak euren esku utz dezake aipatutako prozeduraz arduratzea.
- c. Familiei emango zaizkien material didaktikoei eta curriculumara garatzeko baliabideei zerrenda gainbegiratzea.
- d. Materialak eta baliabideak erabiltzeagatik familiek egin ditzaketen ekarpenei buruz indarreko legerian ezarritakoa betetzen dela kontrolatzea.
- e. Uko egite indibidualak jasotzea.
- f. Programaren helburuak betetzea, ebaluatzea eta OOGri hobekuntzak proposatzea.
- g. Programako materialak eta baliabideak babesteko eta zaintzeko, erregistratzeko eta identifikatzeko eta urtero berrikusteko prozedura zehaztea.
- h. Baldin eta materialak eta baliabideak ez badira itzultzen edo ezin badira berrerabili ikasleak ez dituelako behar bezala zaindu, haiek ordaintzea eskatu zaio arduradunari. Hori egiteko prozedura ikastetxeko antolamendu- eta funtzionamendu-araudian jasoko da.
- i. Proposatu OOGri, ikastetxeko antolamendu eta funtzionamendu araudian jasotzeko, zein neurri hartuko diren arduradunak eskatu zaion dirua ezarritako epean ordaintzen ez badu, hau da, materialak eta baliabideak itzultzen ez badira edo, itzuli arren, ezin badira berrerabili, ikasleak ez dituelako behar bezala zaindu.



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación
Dirección de Centros y Planificación

- j. OOGk, indarreko legeria betez, programa garatzeko agintzen dion beste edozein funtzio.

5.- ERABILERA ETA ZAINTZA.

1.- Ikastetxeek honako hauek jasoko dituzte beren antolaketarako eta funtzionamendurako arautegian: ikasleen esku utzitako material didaktikoak eta curriculumak garatzeko baliabideak erabiltzeko eta zaintzeko arauak; arduradunari dirua eskatzeko prozedura, material eta baliabide horiek galtzen baditu, edo ezin badira berrerabili behar bezala zaindu ez dituelako edo hondatuta daudelako, bai eta hartuko diren neurriak arduradunak eskatu zaion dirua ezarritako epean ordaintzen ez duenean.

2.- Berrerabil daitezkeen material didaktikoak eta curriculumak garatzeko baliabideak Hezkuntza Administrazioarenak izango dira, eta, ikasturtea amaitutakoan, ikastetxean bertan geratuko dira hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko, behin ongi zaindu direla eta hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko moduan daudela egiaztatuta; betiere ikastetxearen antolaketarako eta funtzionamendurako arautegiak ezartzen duena aintzakotzat hartuta.

6.- FINANTZIAZIOA 2018/2019 IKASTURTERAKO.

Honakoen bidez finantzatuko da programa:

Hezkuntza Sailaren ekarpena:

36 € Lehen Hezkuntzako ikasle bakoitzeko.
109 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasle bakoitzeko.

Ikasle bakoitzaren ekarpena:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak prestatzen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzeko den 2013ko uztailaren 10eko Aginduan agertzen dira ikasleek urtean ordaindu beharreko diru-kopuruak. Sarrera hori egitea derrigorrezkoa da. Honako hauek dira:

27 € Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailatan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.
30 € Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailatan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.
31 € Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailatan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.
41 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.
45 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

Baliteke ikasturtean zehar ikasleren bat edo gehiago zuen ikastetxea utzi eta beste batera joatea. Orduan, jatorrizko ikastetxeak ikasle horrek egindako ekarpenaren ordainagiria emango dio beste ikastetxe horretan agertu dezan, eta, horrela, material berriak hartuko ditu bigarren ikastetxe horretan. Hezkuntza Sailak ikastetxeari ordainduko dio ikasle horri dagokion diru-kopurua. Halaber, Hezkuntza Sailak ikasturte amaieran kontuan hartuko ditu Programan egon diren aldeak ikasle-kopuruan.



Zentroko Ordezkaritza Organo Gorenak erabakiko du nola banatuko duen, zentroan ematen diren irakaskuntza-maila ezberdinen artean, ikasleek eta Hezkuntza Sailak emandako kopuruen guztizko batura, bai eta gastu-kontzeptuak zeintzuk izango diren ere, material didaktikoei eta curriculumara garatzeko baliabideei dagokienez.

Egindako gastuaren guztizko zenbatekoak lehen aipatutako guztizko batura gaindituko balu, zentroko Ordezkaritza Organo Gorenak ikertuko eta ezarriko lituzke zentroko ikasleen gaitasunak eta heziketa-proiektua garatzeko egokienak diren ordainketa-formulak.

7.- FIDANTZAK DIRUTAN.

Finantza zuzendariaren 2011ko irailaren 23ko Ebazpenaren (urriaren 28ko EHAA, 205. zk.) bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariari eskuordetzean eman zaizkie Programa honen bermeekin zerikusia duten zenbait eskumen. Eskumenak honako hauek dira: gordetzea, kudeatzea ematea eta itzultzea bermeak.

Ikastetxeetako Kudeaketa Ekonomikoaren Gidan ezarrita dago fidantzak biltzeko, kontabilizatzeko eta, behar izanez gero, konfiskatzeko prozedura.

8.- ESKURATZEKO PROZEDURA.

Ikasturtea hasi aurretik, ikasturtean zehar erabiliko diren material didaktikoei eta curriculumara garatzeko baliabideei zerrenda emango die ikastetxeak ikasleei; material horiek OOGK zehaztutako saltokietan erositakoak izango dira.

Materialak eta baliabideak aurrez adierazitako saltokietan edo hornitzaileetan jaso behar dira, ikastetxeko batzordeak ezarritako prozeduraren arabera.

Ikastetxeak urtero erosiko ditu hondatuta daudela-eta berrezarri behar diren materialak eta baliabideak, bai eta ikastetxeak berak materialak prestatzeko behar dituen materialak ere, halakorik prestatzen bada.

Ikastetxeen kontratazioa eta kudeaketa ekonomiko-finantzariarako autonomia arautzen dituzten arauetan ezarritako prozedurak errespetatu beharko ditu ikastetxeak.

9.- KUDEAKETA EKONOMIKOA.

Programaren kudeaketa ekonomikoa ikastetxearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioan barneratuko da, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen kudeaketa ekonomiko-finantzariarako araubidea arautzen duen uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan (apirilaren 5eko 67/2005 Dekretuaren bidez aldatu zen) eta ikastetxeen diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu-egoerak xehatzen dituen eta 196/1998 Dekretuaren eranskinen osaera eguneratzen duen 2006ko urriaren 18ko Aginduan ezarritakoari jarraikiz.

Dagokion Hezkuntza Delegaritzetako Presupuestoetako Zerbitzuak erantzungo ditu programaren inguruko diru kontuetako zalantzak.



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación
Dirección de Centros y Planificación

10.- EBALUAZIOA ETA KONTROLA.

Hezkuntza Sailak Programaren funtzionamendu administratiboa eta ekonomikoa ikuskatuko ditu, gai bakoitzeko organo eskudunen bidez. Horrekin lotuta, Horrez gain, Hezkuntza Ikuskaritzak bere eginkizunak gauzatuko ditu.

Hezkuntza Sailburuordetzak beharrezkotzat jotzen dituen jarraibideak emango ditu Agindu honetan ezarritakoa betetzeko.

Prestakuntza-ebaluazioaren ikuspegitik begiratuta, Hezkuntza Sailburuordetzak programa behar bezala garatzeko eta hobetzeko behar den informazioa igortzea eskatuko zale zentroei.

Nahitaez eman beharko da eskatzen den informazioa, eta, hala egiten ez bada, hurrengo ikasturteko ekarpena kenduko da.

11.- UKO EGITEAK ETA BATERAEZINTASUNAK.

Ikasleren batek ez badu parte hartu nahi Programan, haren legezko ordezkariak ikastetxeari jakinarazi beharko dio. Horretarako, Ebazpen honen eranskina bete eta ikastetxean entregatu beharko du. Ikastetxeak eranskin horiek **2018ko uztailaren 13ean** baino lehen erantsiko ditu ikastetxe publikoetarako atarian, «Herri-ikastetxeak/Deialdiak» (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>).

Ikasturte batean Programan parte-hartzeak ez du derrigortzen urtebete baino gehiago egotera; hau da, ikasturtean ikasturteko erabakiko da Programari uko egin ala ez. Beraz, eranskin hura urtero bete behar da.

Programan parte hartzeari espresoki uko egiten dion ikasleak ezin izango ditu jaso Hezkuntza Sailak unibertsitariak ez direnentzako ematen dituen diru-laguntzak eskola materialerako beka horien barruan, gainontzeko diru-laguntzetara aurkezterik izango du.

Agindu honetan araututako programan parte hartzea bateragarria da programa horrek helburu dituen materialak eta baliabideak eskuratzeko Hezkuntza Saila ez den beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako edozein laguntza jasotzearekin, baldin eta laguntza horiek guztiak batuta ez badute gaingiditzen ikasleak ordaindu beharrekoa (ebazpenaren 6. atala).

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 31a

HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA

Sin.: Miren Maite Alonso Arana



ERANSKINA / ANEXO

**PROGRAMAN PARTE-HARTZEARI BANAKAKO UKO EGITEA /
RENUNCIA INDIVIDUAL A LA PARTICIPACIÓN EN EL PROGRAMA**

IKastetxea / Centro: _____

IKasturtea / Curso: **2018/2019**

Ikastetxearen kodea / Código Centro: _____

Udalerría / Localidad: _____

Lurraldea / Territorio: _____

_____, jauna / andrea

NAN: _____ duena, aipatutako ikastetxeko Lehen
Hezkuntzako / Bigarren Hezkuntzako _____ mailan matrikulatutako
_____ Ikaslearen legezko
ordezkari naizen aldetik,

D./D^a _____
con DNI: _____, como representante legal del
alumno/a _____

matriculado/a en este centro el en el curso _____ de Educación Primaria /
Educación Secundaria.

ADIERAZTEN DU / DECLARA

**Ikasle horrek uko egiten diola material didaktikoei eta curriculumara garatzeko
baliabideei laguntzeko programan 2018/2019 ikasturtean parte-hartzeari. / que dicho/a
alumno/a renuncia a participar, en el curso 2018/2019 en el Programa de apoyo de
materiales didácticos y recursos de desarrollo curricular.**

_____ (e)n _____ ko _____ (a) ren _____ (e) an

En _____, a _____ de _____ de _____

Izp.: / Fdo: _____